



UMANDI IKASTOLA  
F.J. LANDABURU, 9  
01010 GASTEIZ

## TESTU LIBURUAK SOLIDARIOKI ETA EKITATIBOKI ERABILTZEKO PROGRAMA

- 2010-11 ikasturtean Lehen Hezkuntzako **1., 2. eta 3.zikloan** ezarriko da ( 1,2,3,4,5 eta 6.mailan).
- Testuliburuak erabiltzeko epea 4 ikasturtekoa izango da, Lehen Hezkuntzako 1. Zikloko ikasleei dagozkiena izan ezik; horiek ikasturte batez erabiliko dira.
- Berrerabili daitezkeen testuliburuak eta/edo material didaktikoak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira.
- Familiak liburuak jaso baino lehen:
  - 1.go zikloak **26 €**
  - 2. zikloak **29 €**
  - 3. zikloak **30 €**

sartuko ditu Ikastetxeak Euskadiko Kutxan **3035 0012 76 0120900301** duen kontu korrontean **Ikaslearen izen-abizenak eta maila** adieraziz eta falta dena Departamenduak jarriko du.

- Agindu honetan araututako programan parte hartzea **bateragarria da** testuliburuak eskuratzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ez den beste edozein erakunde publiko( Foru Aldundia, bekak) edo pribatuk emandako edozein laguntza jasotzearekin.
- Esan beharra dago Foru Aldundiko diru laguntza eta Hezkuntza Sailekoa ez direla bateragarriak, hau da, urte berean ezin dira biak jaso. Foru Aldundiaren deialdia Hezkuntza Sailarena baino lehenago irekitzen da eta hau onartua baldin bada, bestea ukatua izango da
- Ikastetxeko batzordeak hartuko du bere gain programaren kudeaketa.
- Ikaslearen legezko ordezkariak ikastetxeari jakinaraziko dio, **ekainaren 30a baino lehen**, Zuzendaritzan uko-egiteko eredia betez.

Gasteizen 2010ko ekainaren 23an

Zuzendaritza